



**ETXEZ ETXEKO
JANARI
ZERBITZUA**
SERVICIO DE
COMIDA A
DOMICILIO



ETXEZ ETXEKO JANARI ZERBITZUA

Pertsona nagusiei euren etxeetan nutrizio egokia eta orekatua izaten laguntzea da helburua.

Nori zuzenduta dago

Beharrezkoa da:

- Durangon erroldatuta egotea.
- 80 urtetik gorako izatea.
- 65 urtetik gorakoa izatea menpekotasun egoeran egonda.



Ezaugarriak

- Bazkari zerbitzua urteko egun guztietan eskainiko da. Banaketak bi egunetan egingo dira: asteartetan (asteazken, ostegun eta ostiraleko menuak banatuko dira) eta ostiraletan (larunbat, igande, astelehen eta astearteko menuak).
- Bazkaria zentralizaturiko sukalde batean prestatu eta segurtasun zein higiegi baldintzak betetzen dituen ibilgailu egokitan bananduko da.
- Bi menu mota daude aukeratzeko eta elikagaiekin lotutako beharrianen arabera dietak eskaintzen dira. Dieta berezien beharra medikuaren txosten bidez ziurtatu beharko da.

Menuen eskaera

- Menuak gutxienez 2 asterorako aukeratu behar dira.
- Nahiz eta zerbitzua egunerokoa izan, astero gutxienez 5 eguneko menua eskatu beharko da.
- Erabiltzailearen edo familiaren ardura izango da bitartekariari aukeratutako menuaren berri ematea.

Prezioak

Pentsioaren arabera izango dira (12 ordainketa).

Familia unitatea pertsona 1 bada	Bikoteak
900 euro baino gutxiago 5,20 €	1.500 euro baino gutxiago 5,20 €
900 euro baino gehiago 7,20 €	1.500 euro baino gehiago 7,20 €

Zerbitzuan izena emateko

- Zerbitzuan izena emateko ordutegia astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 16:00-18:00ra izango da, Adinekoen udal egoitzan.
- Alta emateko ondorengo dokumentazioa behar da:
 - Inskripzio orria, modu egokian bete.
 - Jatorrizko nortasun agiri nazionala (NAN) aurkeztu edo agiri honen fotokopia utzi.
 - Pentsioaren zenbatekoa egiaztatzeko Gizarte Segurantzaren agiria edo pentsioa egiaztatzeko beste agiri bat, bakarrik ordaindu beharreko prezioa txikiagoa denean.
 - Bankuko kontu zenbakiaren ziurtagiria.
 - Menpekotasun egoeraren egiaztapena.
 - Zerbitzua aldi baterako eskatuz gero, medikuaren txostena.
 - Alergia edo intolerantzia kasuetan, medikuaren agiria.

Ordainketa

Zerbitzuaren ordainketa hilaren amaieran egingo da, eta udala arduratuko da erabiltzaileei banku bidez kuota kobratzeaz, bakoitzaren tarifak eta zerbitzu egunak kontuan hartuz.

Informazio gehiago



DURANGOKO ADINEKOEN EGOITZA
ADINEKOENTZAKO KAFETEGIA
adintek@durango.eus – www.durango.eus

Tel. 94 465 74 51
Tel. 94 620 04 38